



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Familientzat informazioa


2016-2017 ikasturtea



Zure lasaitasuna gure helburu

Aurkibidea

Zer da Haurreskolak partzuergoa?	2
Gure helburuak	2
Gure hezkuntza-ezaugarriak	3
Haurreskolen tipologia	3
Zeintzuk dira gure bereizgarriak?	4
Haurreskoleetako hezitzaileen ezaugarriak	4
Familiekiko harremanak	4
Egokitze-aldia	5
Premisak	5
Ezaugarriak	7
Faseak	7
Egutegi eta ordutegia	9
Haurreskolako Jarraipen Batzordea	10
Bajak eta haurreskolara ez agertzea	11
Kuotak	11
Batzkariak	12
Batzkaria etxetik eramaten denean	12
Catering-aren erabilera	13
Haurreskolara eramán beharrekoak	13
Osasun-arloak	14



Zer da Haurreskolak Partzuergoa?

Haurreskolak Partzuergoa 0 eta 2 urte bitarteko haurreskola publikoak kudeatzen dituen entitate publikoa da. Entitate hau Eusko Jaurlaritza eta udalen artean sinatutako hitzarmenei esker sortzen da.

Haurreskolak Partzuergoaren helburua 0 eta 2 urte bitarteko haurrei zuzendutako hezkuntza-zerbitzu osoa eskaintzea da, hala nola laguntza soziala, bereziki lana eta familia bizitza bateratzearen arloan.

Hezkuntza eta laguntza zerbitzua eskaintzeko Haurreskolak Partzuergoan barneratzen diren udalek indarreko legediarekin bat datozen instalazioak eduki beharko dituzte, hauek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ikuskatu eta balioetsiko ditu. Aldi berean, udalek instalazio horien mantenu, garbiketa eta zaintza aurrera eraman beharko dituzte.

Haurreskolak Partzuergoa haurreskolen kudeaketa osoaz arduratzen da, horretarako hezitzaile adituez osatutako langilegoa du.

Gure helburuak

Haurreskolak Partzuergoak haurren garapen fisiko, intelektual, afektibo eta soziala bultzatzen du, helburu zehatz batzuetan oinarriturik:

1. Familiaren laguntzarekin, haurren garapen osoa sustatzea, ingurunea ezagutzen laguntzea, haren nortasuna indartuz.
2. Haurrek, garapen ebolutibo orekatua izateko, haien hezkuntza prozesuan izan ditzaketen hutsuneen eta gabezien aurrean, hezkuntza prebentiboa eta orekatzailea sustatzea.
3. Heziketa jardueren barruan hauek guztiak barneratzen dituen hezkuntza globala sustatzea: gorputza, objektua, ekintza, pentsamendua, bestea, nia, afektibitatea, arrazionaltasuna, erreala, ametsezkoa.
4. Hezkuntza sortzailea programatzea, horren bidez, haurrek bilaketa eta abstrakzio berriak egin ditzaten eta kontzientzia har dezaten.
5. Familiei haurren garapen osoari dagokion laguntza ematea.



Gure hezkuntza-ezagarriak

- Haurreskolak Partzuergoak, euskara komunikatzeko eta ikasteko hizkuntza moduan erabiltzeko beharrezkoak diren baldintzak sustatu eta bultzatzen ditu, eta ez du haur edo familiarik diskriminatzen bere komunikazio-hizkuntzagatik.
- Haurreskolak Partzuergoak hezkidetzaren alde lan egiten du, berdintasunaren aldeko hezkuntzan, sexu-arrazoiengatik inongo diskriminaziorik izango ez duen hezkuntzan, haur guztiak aukera berdinak izan ditzaten garapen ebolutiboaren prozesuan zehar.
- Haurreskolak Partzuergoak kontuan izaten ditu haurren ikasketa eta garapen-prozesuak:
 - o Esperientzien eta ingurune natural, fisiko eta sozilaren arteko elkarreraginaren bidez lortzen duten gorputzaren ezaguera eta pixkanakako kontrola.
 - o Hizkuntza desberdinen bitartez (plastikoa, ahozkoa, musikala,...) haurrak eta munduaren arteko erlazioen eraikuntza.

Haurreskolen tipologia

Eskaintzen diren plaza kopuruak eta hezitzaileen ratioak zehaztuko dute udalerrri bakoitzean haurreskola bakoitzaren tipologia:

	Haurren gehienezko kopurua	Hezitzaileen kopurua
0 urtekoen gela	8	Gelako 2: Lanaldi osoarekin bata eta lanaldiaren erdiarekin bestea
Urte 1ekoen gela	13	Gelako 2: Lanaldi osoarekin bata eta lanaldiaren erdiarekin bestea
0 urtetik 1era bitarteko taldekatzea	10	Gelako 2: Lanaldi osoarekin bata eta lanaldiaren erdiarekin bestea

- Hezitzaile bakarra kontratatuko da, gelak lau haur besterik ez dituenean.
- Hiru haur baino gutxiagorekin ez da haurreskola zabalduko.

Zeintzuk dira gure bereizgarriak?



Hona haurreskolen ezaugarriak:

- Segurtasunerako eta osasunerako ingurune-baldintza egokiak dituzten instalazio eta espazioak bermatzen ditugu.
- Hezitzaile adituak eta prestatuak, euren eginkizunak behar den profesionaltasunez egiteko gai direnak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetan komunikazioa lagundu.
- Familiekin lankidetzan dihardugu, haurraren onerako beti.
- Espazioa, denbora eta baliabideak eskaintzen ditugu, haurreskolen ekintzak eraginkortasunez garatzeko modukoak.
- Familia eta beraien haurrei antolaketa eta funtzionamendu-eremuak, haurren ezaugarri eta garapenaren erritmoraren egokitutako baliabide eta estrategia pedagogikoak ematea.

Haurreskoletaiko hezitzaileen ezaugarriak

Honako baldintza hauek bete behar dira, ezinbestean, Haurreskolak Partzuergoan hezitzaile izateko:

- Haurreskoletaiko titulazio akademikoren bat eduki:
 - Haur Hezkuntzako Gradua edo baliokidea.
 - Goi Mailako Teknikaria Haur Hezkuntzan edo baliokidea.
- Euskara titulua eduki: Hezkuntzako 2. hizkuntz eskakizuna, EGA edo baliokideak.



Familiekiniko harremanak

Gure Hezkuntza Proiektuak azpimarratzen du, hezkuntza eta ikaskuntza guztion ardura dela. Kontuan hartzen badugu haurrek lehen urteetan izaten duten heziketak eragin erabakigarria izango duela haien geroko giza garapen integralerako, ezinbestekoa da familiaren eta haurreskolaren arteko lankidetzaren. Familia da haurraren heziketaren arduradun nagusia, eta haurreskolari dagokio lan horretan familiekin batera lan egitea eta garapenerako neurri egokiak bultzatzea.

Ondorengoek erraztu egingo dute harreman hori:

- **Hasierako bilera orokorra** familia guztiekin, haurrak haurreskolan hasi aurretik. Bilera horretan azalduko dira haurreskolaren metodologia, funtzionamendua, arautegia, egokitze-aldia eta familiekin ezagutu behar dituzten alderdi guztiak.
- Hezitzaileek familiarekin **lehen elkarrizketa**, hasieratik zuzeneko harremana edukitzeko, haurra bere giroan nolakoa den jakiteko, alderdi guztietan: afektiboa, fisikoa, soziala...

- **Ikasturtean zehar bilera orokorra** familia guztiekin, haurreskolako funtzionamenduarekin lotuta dauden gai pedagogikoei buruz hitz egiteko.
- Familiak **hiruhilekoan behin** idatzizko informea jasoko du haurraren garapen prozesuari buruz.
- Ikasturte amaieran familiarekin **azken elkarrizketa**, bukaerako informearen banaketarekin bat egin dezakeena.
- **Ikasturtean zehar** familiarekin banakako bilerak, haurraren hezitzaileek beharrezkotzat jotzen dutenean edo familiak eskatzen duenean.
- Familiarekin **eguneroko harremana** izatea, haurra sartu eta irteten denean.
- Haurreskolak antolatzen dituen jarduera guztietan **familien parte hartzea**.

Egokitze-aldia

Premisak

Egokitzapen fasea, momentu berezia eta sentikorra da haurraren bizitzan, lehen aldiz haurreskolara gerturatzen baita. Espazio desberdinak, bizitza modu berri bat eta batez ere pertsona berriak aurkituko dituen toki berri bat izango da.

Haur txikiek erreferentziatzeko pertsona izaten dute mundua ulertu eta munduarekin erlazionatzeko; ama, aita,... Pertsona horrekin lotura, erlazio primarioa garatzen dute eta erlazio hori etorkizunean besteekin erlazionatzeko gaitasunaren oinarri izango da. Erreferentziatzeko eta loturazko pertsona horretatik bereizteak haurraren errealitate emozionala nahastu egiten du, horregatik, garrantzitsua da bereizketa horrek haurraren izan dezakeen eragina seriooki planteatzea eta haurraren emozioak ulertzea.

Haurreskolara egokitzekoaldiak haurrarentzat berezkoa eta ohikoa ez den inguru berri bateko baldintzetara egokitzea esan nahi du. Haurrek zenbait aldaketa jasango dituzte; beraiek protagonista nagusiak diren inguru batetik, beste haurrekin elkarbizitzen, erlazionatzen eta partekatzen ikasi beharko duten beste inguru batera igaroko dira. Giro berri batean sartzen dira eta bertako pertsonak, lekuak eta materialak ezezagunak dira beraientzat.

Haurra haurreskolan sartzeko urrats garrantzitsua da haurraren bizitzan, eta nahiz eta zenbait kasutan hasieran bereizketa hori haurrarentzat mingarria izan, pixkanaka-pixkanaka haurra giro berri horretara egokitu egingo da. Bereizketa horri esker, gainera, haurraren autonomia pertsonala eta sozializazio-maila areagotu egingo dira.

Egokitze hori ez dute haurrek bakarrik egiten. Haurreskolara sartzeko une honetan parte hartzen duten subjektu guztiak hartu behar dira kontuan: haurra, familia eta hezitzaileak. Egokitzapen garaia pertsona hauek elkarren artean ezagutzeko, haurraren beharrak antzemateko eta konfiantzazko harremanak sortzeko une egokia da.

Baliteke egokitzealdi horretan haurrak errefusatze-jokabideak izatea; negar egitea; bereizketa dela-eta, larrituta egotea; negar ez egitea eta haurreskolan parte hartzea jarduera berria iruditzen zaielako eta gero etxean jokabide negatiboak izatea; ez onartzea pertsona ezezagunek zaintzea; parte ez hartzea; etxetik ekarritako jolasen bati gogor atxikitzea,...

Jokabide horiek guztiak normalak izaten dira egokitzealdi horretan, eta gauza normal edo natural bezala ulertzen badugu, haurrari lagundu egingo diogu egokitzealdiaren prozesu horretan. Prozesu horretan, gainera, haur bakoitzak erritmo desberdina izango du eta errespetatu egin behar dugu.

Familiaren jarrera oso garrantzitsua izaten da. Segurtasun eza sentitzea, bereizketagatik errudun sentitzea, haurra ezagutzen ez dituen pertsonen kargura uzteari buruzko kezka... Sentimendu horiek normalak eta ohikoak izaten dira, baina kontu handiz zaindu behar dira kanpoko jarrerak, haurrengan segurtasun eza ez sortzeko.

Egokitze-aldian:

- Familiaren jarrera garrantzitsua da: lasai eta seguru sentitzen bada, haurrak ere naturaltasunez hartuko du haurreskolan sartzea.
- Haurrari beti egia esan behar zaio, zer gertatuko den azaldu; eta ez zaio beldurrik sartu behar.
- Haurreskola ondo pasatzeko tokia, beste haurrekin jolas egingo duen lekua dela esan behar diogu haurrari.
- Komeni da haurreskolara pertsona ezagun batek eramatea eta pertsona horrek jasotzea. Horrek segurtasuna emango dio haurrari.
- Agurtzerakoan, ez da alde egin behar haurra konturatu gabe, segurtasunez eta naturaltasunez agurtu behar da haurra. Agurtzeko unea gehiegi luzatzea ez da komeni izaten. Maitasunez agurtzea komeni da, ezkutatu gabe eta gezurrik esan gabe. Haurrari ulertarazi behar zaio egiten ari zaretena berarentzat ona dela.
- Gustukoen duen objektua eraman dezake; txupetea, jolasa... berarentzat ezaguna den zerbait eta bere etxearekin lotuta sentiaraziko duena.
- Ez da momentu egokia haurraren bizitzan aldaketak egiteko; gelaz aldatzea, esaterako. Komeni da aldaketa horiek egokitze-aldia pasa ondoren egitea.
- Haurra jasotzen dugunean esaldi tristeak ekidin behar dira.
- Komeni da etxean, noizbehinka, haurreskolako egoerak eta pertsonak gogoratzea. Bere hezitzaileari buruz hitz egin behar diogu eta bere izena errepikatu.
- Hasieran izan ditzaketen jarrerak onartu eta ulertu egin behar ditugu: negar egitea, ikusten gaituztenean axolagabetasuna azaltzea...
- Puntualak izatea oso garrantzitsua da; berandu heltzen bazarete, abandonatu egin duzuela pentsatuko duelako.

Prozesu hori motela izaten da eta garrantzitsuena haurrak segurtasuna eta konfiantza hartzen joatea da. Egokitzekoaldi horretan, halaber, oso garrantzitsua da familiek haurren egokitzealdi hori kontuan hartzea eta hezitzaileengan konfiantza izatea. Hezitzaileei beren zalantzen eta segurtasun-gabezien berri ematea ere komeni da, bereizketa ahalik eta samurrena izan dadin.

Azken finean, haur guztiek egokitze-aldi honetatik pasa beharko dute, haurreskolara sartu ondoren, beharrezko epea baita haurrak bere buruan duen segurtasuna eta helduek ematen dioten maitasunean duen konfiantza berriro eskuratu arte.

Ezaguarririk

Haurreskolak Partzuergoan lehen aldiz sartzen den haur orok 10 laneguneko egokitze-epea bete beharko du.

Ordutegia antolatzea, haurrak taldeetan banatzea eta garai horretan egin beharreko jarduerak erabakitzea haurreskolako koordinatzailearen lana izango da, hezkuntza-taldearekin batera. Garai horretan, haurrek denbora-modulu laburragoko ordutegia izango dute, eta horiek luzatzen joango dira pixkanaka, haurreskola bakoitzak ezarritakoari jarraituz. Hasierako egunetan komenigarria da familia haurarekin gela barruan egotea.

Haurreskolak Partzuergoan jarraitzen duten haurrek ez dute egokitze-aldirik egingo. Dena dela, hezkuntza-taldeak komenigarria ikusten badu, zenbait familiari egokitze-aldia egitea gomendatuko die, baina inoiz ez ditu behartuko. Kasu horietan, egokitze-aldia eginez gero, beharrezkoa izango da familiak baimena sinatzea eta inoiz ez dira 5 egun baino gehiago izango. Honelakoetan, egokitze-aldia egin arren, hileko kuota osoa ordainduko dute, eskatutako ordutegiaren eta esleitutako kuota tartearen arabera.

Faseak

- A. Hezitzaile-taldeak egokitze-aldia prestatzea:** haurreskolako koordinatzaileak, hezkuntza-taldearekin batera, ezarriko ditu behar diren jarraibideak, egokitze-aldia ondo joan dadin eta haurrek bizitzako etapa honetara sartzeak dakartzkien abantailak jaso ditzaten, betiere, beraien beharren arabera.
- Taldean banaketa egingo dute eta familien bertaratzearen pautak ezarri (gela barruan eta kanpoan egoteko).
 - Egun hauetan haurrak bertaratzeko orduak ezarriko dituzte.
 - Espazioak eta materialak antolatuko dituzte.



A. Familiekiko lehen harremana: egokitze-aldia hasi baino lehen familiei informazioa emango zaie zalantzak eta kezkek argitzeko (ordutegiak, taldeak,...):

- a) Haurrak haurreskolan hasi baino lehen, familiekin egingo da bilera orokorra.
- b) Egokitze-aldia burutzen den bitartean, hasierako elkarrizketa egiteko aprobetxatuko da, hurrei buruzko informazioa eskuratzeko.

B. Hezitzaile taldeak ondorengo antolaketa zehaztuko du, arian-arian:

- a) Ordutegien antolaketa: Gomendatzen da ordutegi murriztu batekin hastea eta hurrengo egunetan luzatzea. Ezin da egon ordu bete baino gutxiago:
 - 1go, 2. eta 3. egunetan: haurra gutxienez ordu bete egongo da haurreskolan.
 - 4., 5. eta 6. egunetan: haurra gutxienez 90 minutu egongo da haurreskolan.
 - 7., 8., 9. eta 10. egunetan: haurra gutxienez 2 ordu egongo da haurreskolan.
 - 11. egunean: haurrak familiak eskatutako ordutegia beteko du.
- b) 10 eguneko egokitze-aldia bukatzen denean eta familiak hori luzatzea nahi badu, hezitzaileekin kontsultatu eta adostu beharko du, kontuan izanda egokitze-aldiko kuota behin bakarrik aplikatuko dela.



Egutegi eta ordutegia

1. Haurreskolek irailetik uztaiera bitartean eskainiko dute zerbitzua, bi hilabete horiek barne.
2. Egutegia urtero haurreskolako Jarraipen Batzordeak onartuko du, Haurreskolak Partzuergoko barne arautegia jarraituz.
3. Haurreskolako egutegia familia guztiei emango zaie ikasturte hasieran, eta bertan adieraziko dira haurreskolak haurrak hartuko dituen egunak, baita oporraldiak ere.
4. Familia-beharren arabera, haurreskola 7:30etik 17:00etara egon ahal izango da zabalik, eta 18:30ak arte luza daiteke, gutxienez 3 haur batera egonez gero.
5. Haurrak ezin izango dira egunero 8 ordu baino gehiago haurreskolan egon.
6. Haurreskola batean 4 haur baino ez badira ez da 7 ordu baino gehiago irekiko.
7. Bajan emandako haurrek Haurreskolak Partzuergoan berriro izena eman nahi badute 3 hilabete edo gutxiagoko epean, izen-ematea onartuko zaie, baldin eta banku-transferentziaren bidez hilabete horien ordainketa egiten badute, Haurreskolak Partzuergoak aztertuko dituen salbuespenak izan ezik: langabezi egoerak edo haurraren osasun egoera larriak edo ospitalizazioa eragiten dutenak. Egoera hauek ziurtatzea beharrezkoa izango da.
8. Izena emateko orrian familiek eskatzen duten ordutegiaren arabera haurreskola bakoitzeko ordutegia finkatuko da.
9. Ordutegi hori haurreskolan hasterakoan baieztatu eta ziurtatuko du familia bakoitzak.
10. Sartu eta irteteko orduak betetzea eskatzen da.
11. Ordutegiak. Haurrak sartzeko eta irteteko ohiko ordutegiek ez dute bat egin behar jateko, lo egiteko edo heziketa-jarduerak egiteko orduekin. Izan ere, haurrak haurreskolatik sartu eta irteten badira ordu horietan, kalteak eragin daitezke, bai adierazitako jarduera horietan, baita haurreskolaren funtzionamendu normalean ere. Beraz, ikasturtean zehar haurrak haurreskolara sartzeko eta irteteko orduak honakoak dira:

Sartu	Irten
7:30etik 9:30era 11:30etik 11:45era 12:45etik 13:00etara 15:00etatik aurrera	11:30etik 11:45era 12:45etik 13:00etara 15:00etatik aurrera

Bazkaria: 11:45etik 12:45era
Siesta: 13:00etatik 15:00etara
Askaria: 15:30etik 16:30era

12. Irteteko orduetan, haurra utziko da familiarekin edo honek alde zurreratik baimendutako pertsona batekin (idatziz, izenpetutako agiriaren bidez eta NANA atxikituz), azken hauek 16 urte edo gehiago baldin badute.
13. Familiak ordutegiaren aldaketa eska dezake idatziz gutxienez efektu-data baino 5 egun lehenago, haurreskolan eska dezaken ereduaren bitartez.
14. Haurrak familiak zehaztutako ordutegiaren barruan ohiko ordua baino beranduago sartu eta irten daitezke arazo pertsonalak eta justifikatuak badira (adib. medikuarenera joan behar badute,...), baina aurreko egunean abisatu behar da. Larrialdietan, telefonoz ere abisa daiteke.
15. Ordutegia aldatzeko eskaera horrek haurreskolaren antolaketa orokorrari eragiten ez badio edo hezitzaile gehiagoren beharra suposatzen ez badu, haurreskolako koordinatzaileak onartuko du aldaketa hau eta haurra ordutegi berriarekin has daiteke.

Jarraipen Batzordea

Haurreskolaren antolamenduaren eta funtzionamenduaren segimenduaz arduratuko den kide anitzeko organoa da. Haurreskolako Jarraipen Batzordea urtero eta iraileko lehen egunetan eratuko da eta bere partaideen berri Haurreskolak Partzuergora emango da ikasturte hasieran.

- **Osaera:** ondokoek osatzen dute organo hori:

- 1) Haurreskolaren ordezkariak: koordinatzaileak.
- 2) Hezkuntza Taldearen ordezkariak.
- 3) Udalaren ordezkariak.
- 4) Haurreskolako familien ordezkariak, haurreskolako familien artean aukeratutakoa.



- **Funtzionamendua:**

- a) Jarraipen Batzordea, gutxienez ere, hiru hilabetetik behin bilduko da. Bilerak Haurreskolako koordinatzaileak edo kideen herenak deituko dituzte, astebete lehenago. Bileretan, Jarraipen Batzordeak sinatutako programazioa eta erabakiak betetzen diren aztertu eta baloratuko da bereziki. Jarraipen-batzordearen bileren akta jasoko da. Ikasturtearen hasieran bilera arrunten ordutegia ezarriko da.
- b) Bilerak lanegunetan egingo dira, haurreskolaren ordutegiaren ondoren eta kide guztiak bertaratzeko moduko ordutegian. Bilera egin eta erabakiak eta akordioak hartu ahal izateko, koordinatzaileak eta kideen erdiak egon beharko dute bileran.
- c) Erabakiak gehiengo soilez onartuko dira.
- d) Jarraipen Batzordeko kide guztiek eskatu ahal izango dute hartutako erabakien akta.
- e) Ezin izango da gai-zerrendatik kanpo dagoen gairik eztabaidatu edo erabaki, premiazkotzat hartu eta kideen gehiengoaren aldeko botorik ez bada behintzat.
- f) Bilera arruntak idatziz deitu beharko dira astebete lehenago, eta bilera horietarako gai-zerrenda erantsi beharko da.
- g) Ez-ohiko bilerak 72 ordu lehenago deituko dira, gutxienez.
- h) Jarraipen Batzordean hartzen diren erabaki guztiak ordezkaturako sektoreei jakinaraziko zaizkie, eta iragarki-taulan jarriko da hartutako erabakien laburpena.

- **Funtzioak:**

Haurreskolako hezkuntza, asistentzi, administrazio eta zerbitzuei dagokienez, Jarraipen Batzordearen funtzioak dira haurreskolako jarduera orokorra ikuskatzea, aztertzea eta baloratzea. Hona horien barruan sartzen diren egiteko batzuk:

- a) Haurreskolaren hezkuntza-proiektua egiten parte hartzea eta proiektu hori onartzea.
- b) Haurreskolaren hezkuntza-proiektua eta urteko programazioa egiteko eta aldatzeko proposamenak egitea.
- c) Haurreskolaren funtzionamendu orokorra eta egoera ekonomikoa aztertzea.
- d) Barne-erregimeneko arautegia egiteko irizpideak eta proposamenak ekartzea.
- e) Hezkuntza-zikloko hezkuntza-jarduerak koherenteak eta jarraituak izan daitezen arduratzea, eta, batik bat, bi urteko gelak koordinatzea.
- f) Familiei, haurren hezkuntza-jarduerekin zerikusirik duen orori buruz eman behar zaien informazioa koordinatzea.
- g) Hezkuntza-taldeen eta haurren familien arteko hezkuntza-lankidetzaren sustatzea.

- h) Haurreskolak inguruko erakundeekin dituen harremanak ezagutzea eta beste harreman batzuk proposatzea.
- i) Instalazioen eta eskola-ekipamenduen berrikuntza sustatzea eta horien kontserbazioaz arduratzea.
- j) Haurreskolako egutegiaren proposamena egiten parte hartzea eta hura onartzea. Ondoren, Haurreskolak Partzuergora aurkeztu beharko da, onar dezan.

Bajak eta haurreskolara ez agertzea

- Haurreskolan hasi gabeko haurren familiei, ez zaie izen-ematea egiterako orduan ordaindutako zenbatekoa (91€) itzuliko, Haurreskolak Partzuergoak aztertuko dituen salbuespenak izan ezik: langabezi egoerak edo haurraren osasun egoera larriak edo ospitalizazioa eragiten dutenak, betiere egoera hauek aurretiako kuota ordaindu ondoren eta haurra haurreskolan hasi aurretik ematen badira. Egoera hauek ziurtatzea beharrezkoa izango da.
- Bajak haurreskolari jakinarazi beharko zaizkio familiak haurreskolan eskatutako eta sinatutako baja-ereduaren bitartez. Datu guztiak ondo betetzea eskatzen da (baja-eguna barne, berau haurreskolara joandako azken eguna da) Baja onartzeko bajaren efektu-data baino **5 egun lehenago** eskatu beharko da. Ondoren jasotako bajak ez dira onartuak izango.
- Bajan emandako haurrek Haurreskolak Partzuergoan berriro izena eman nahi badute 3 hilabete edo gutxiagoko epean, izen-ematea onartuko zaie, baldin eta banku-transferentziaren bidez hilabete horien ordainketa egiten badute, Haurreskolak Partzuergoak aztertuko dituen salbuespenak izan ezik: langabezi egoerak edo haurraren osasun egoera larriak edo ospitalizazioa eragiten dutenak. Egoera hauek ziurtatzea beharrezkoa izango da.
- Bajak ondorio ekonomiko eta antolakuntzakoak izango ditu baja egunaren ondoko hilabetetik aurrera.
- Haurrak behin baino gehiagotan jarraian haurreskolara huts egin behar badu familiak lehenbailehen jakinarazi beharko dio haurreskolako koordinatzaileari. Epe luze batean jakinarazi ezean behin-betiko baja ofizios bideratuko da.
- **Uztaileko bajen agiriak ekainaren 2a baino lehen entregatu beharko dira haurreskolan onartuak izateko.** Ekainaren 2tik aurrera entregatutako uztaileko bajak ez dira onartuak izango antolamendu eta kudeaketa arrazoiengatik.

Kuotak

- Familiek haurreskola irekita egongo den 208 eguneko arreta zuzenagaitik ordaindu behar duten kostua 11 hileko kuotatan zatitu egiten da, hilabete bakoitzean haurreskola irekitzen den egun-kopurua kontuan izan gabe.
- Haurreskolako hileko kuotaren kalkulua, familia unitatearen errenta estandarizatuaren arabera egingo da.



Kuota tartea	Errenta estandarizatuaren mailak	8 ordu arteko kuota	5 ordu arteko kuota	Egokitzapen hilabeteko kuota
1	≤10.000€	118€	91€	91€
2	>10.000€ eta <15.000€	180€	140€	140€
3	≥15.000€	208€	160€	160€
AURRETIAKO KUOTA	91€			



- Kuota hilabetea amaitutakoan ordainduko da, hurrengo hileko lehen hamar egunen barruan, familiak erabakitzen duen kontu korrontean helbideratuz.
- Aurretiako kuota izen-ematearekin batera kobratuko da. Lekualdatzeen kasuan, haurreskola berrian lehen hilabetean egingo den ordutegiari dagokion kuotaren eta aurretiaz ordainduriko zenbatekoaren (91€) arteko diferentzia, hilabetea amaitutakoan kobratuko da.
- Hileko kuotak osorik kobratuko dira; haurra haurreskolan hasitako edo baja emandako eguna kontuan hartu gabe.
- Hileko kuota, kobratu beharreko hilean egindako ordutegi tarte luzeenari dagokio. Ordutegi murrizketa hilabetearen erdian egiten bada, kuota berria hurrengo hilabetean gauzatuko da. Ordutegi luzaketa hilabetearen erdian egiten bada, kuota berria hilabete berebean gauzatuko da.
- **Ordainarazpena errekararekin:** ordain-agiriak itzultzen badira premiamendu-bidea bitartez kobratuko da zuzenean, dagokion errekarua barne hartuz, bai eta legez eskatu litezkeen berandutze-interesak, gastuak eta kostuak ere.

Bazkaria

- Hezitzaileek emango diete jaten hurrei.
- Haurreskola bakoitzean familia bakoitzak aukeratuko du janaria etxetik eraman nahi duen edo catering-zerbitzua erabili nahi duen; betiere, catering zerbitzu hori bideragarria denean (batez ere, janari kopuruari eta instalazio egokiei dagokienez).
- Catering-zerbitzua erabiliz gero zerbitzu horren kudeaketa familiek egingo dute.

Bazkaria etxetik eramaten denean

- Familiak haurraren **janaria etxetik eramatea** erabakitzen badu termoetan egin beharko du, behin Haurreskolak Partzuergoak horiek banatu ondoren.
- Bazkaria termoetan eraman beharko da, eta ez tuppeware-etan, haurreskolako instalazioetan janariaren egoera edo kalitate ona ziurtatzeko. Ezinbestekoa da bazkaria beti bero-bero eramatea.
- Haurreskolak Partzuergoak banatuko dituen termoekin batera erabilpenerako argibideak banatuko zaizkie familiei. Horetan bazkariaren egite prozesu, mantentze, garbitze eta garraioan hartu beharreko neurriak zehazten dira.



- Jarraian termoen erabilpenerako argibideak zehazten dira:
 - o Aurretik prestatutako jakietan 65°C baino gehiagoko tenperaturen mantenuak elikagaiaren segurtasuna ziurtatzen digu. Hori dela eta, termoetan saltsak dituzten elikagaiak edo pure motako bazkariak barneratzea gomendatzen da. 90°C baino gehiagoko tenperaturan dauden elikagaiak sartzea gomendatzen da. Bazkaria irakiten hasten dela igarri behar dugu.
 - o Gogoratu elikagaia aurreko egunean prestatua izan bada kazola giroko tenperaturara epeltzen utzi behar dela horrek erretzen ez duen arte, baina oraindik beroa igartzen dela. Orduan tupper batean barneratu eta hozkailuan sartzen da. Hurrengo egunean irakite punturaino berotu beharko da termoan sartu ahal izateko.
 - o Termoaren erabilera optimizatzeko barrualdea minutu batez ur oso beroarekin berotzea gomendatzen da; ondoren, bazkaria barneratu, posiblea izanez gero irakite puntuan, eta berehala itxi. Bazkaria hoztu dezakeen airea barruan gelditzea ekiditearren termoa ahalik eta gehien betetzea gomendatzen da.
 - o Ezinbestekoa da familiek termoaren garbiketa sakona egitea bazkaria lehenago prestatutako bazkarien hondarrekin ez kutsatzeko. Termo garbitzerakoan ez dira espartzua edo urratzaileak diren garbitzaileak erabili behar. Termo metalikoa ezin da mikrouhinean erabili ezta ontzi-garbigailuan garbitu ere.

Catering-aren erabilera

- **Catering-zerbitzua** erabiliz gero, zerbitzu horren kudeaketa familiek egingo dute.
- Nolanahi ere, catering-zerbitzu horren kostua ez da hileko kuotan sartzen.
- Catering-zerbitzuaren bitartez jasotako janaria, kopuruaren arabera edota enpresaren arabera, hotza ala beroa heldu daiteke haurreskolara.

Haurreskolara eraman beharrekoak



Familia guztiek eraman beharko dituzte haurreskolara:

- Arropa zikina gordetzeko poltsak.
- Aldatzeko arropa (bodya, txandala, galtzerdiak,...). Arropa guztiek haurraren izena izan beharko dute.
- Hurrek arropa eroso eraman beharko dute haurreskolan erabiltzeko (txandal moduko arropa).
- Mantala eramatea komeni da, haurreskolan bazkaltzen duten haurrentzat.
- 0 urteko hurrek bina biberoi (urarena bata eta esnearena bestea) eta txupete bana ekarri beharko dituzte haurreskolan bakarrik erabiltzeko.
- Urtebeteko hurrek edateko ontzia ekarri beharko dute (edalontzia, biberioa,... normalean erabiltzen dutena) eta haurreskolan bakarrik erabiltzeko txupetea.
- Pixoihalak eta eskuoihalak.
- Bi toalla, haur bakoitzari pixoihalak bere toallaren gainean aldatzeko.
- Haurreskolarako adur-zapiak, izena ipinita.
- Familiei eman ahal izango zaizkie beraien garbiketarako eskuoihalak, arropa zikinak, izarak, adur-zapiak edo antzeko elementu edo materialak.
- Guztien arteko giro ona sortzeko, hurrek ez dute ez gozokirik ezta jostailurik ere ekarriko, transizio objektu edo atxikimenduzkoak direnak izan ezik.

Haurreskolak Partzuergoak ez du bere gain hartzen haurreskolan utzitako aulki, objektu, jantzi eta abarren balizko aldaketa edo desagertzeen erantzukizuna.

Osasun-arloak

Adin hauetan osasunaren gaia oinarritzkoa da eta erne egon behar dugu. Haurreskolako haur guztien osasunaren alde egiteko helburuarekin hurrengo arauak jarraituko dira:

- Haurreskolan hasterakoan familia guztiek haurraren Osasun Txartelaren fotokopia entregatu beharko dute.
- Haurrak botika bati, elikagai edota sustantzia bati alergia edukiz gero familiak haurraren hezitzaileari idatziz jakinarazi beharko dio haurreskolan hasterakoan edo gaixotasunaren berri eduki bezain pronto. Familiaren idatziarekin batera aipatutako alergia jasotzen duen medikuaren ziurtagiria eranstea gomendatzen da.
- Haurrek ezohiko egoeraren bat bizi badute, familiak lehenbailehen eman beharko du horren berri haurreskolan. Aldi berean, haur batek gaixotasun sintomak aurkezten dituenean dagokion hezitzaileak haurraren familiari bere egoera edo tratamenduaren inguruko informazioa eskatuko dio.
- Beharrezkoa ikusten den kasuetan, dagokion hezitzaileak edo haurreskolako koordinatzaileak haurraren familiari *Haurraren osasun egoera ona jakinarazten duen agiria eskatuko dio.*
- Haurrek gutxieneko higiene-baldintzak betetzea eskatzen da, bai gorputzari dagokionez, baita jantziei dagokionez ere.
- Izurrite garaian (adibidez: zorriak) familiek arreta berezia jarri beharko dute haurraren higienean. Mota honetako izurriteak ahalik eta gehien ekiditeko egokiak diren produktuak erabiltzea gomendatzen da.

Haurreskola infekzio-fokua izan ez dadin haurrak ez dira haurreskolara ekarriko ondoko sintomak dituztenean:

- 38°C baino gehiagoko uzki tenperatura edo 37,5°C-ko besapeko tenperatura izatea.
- Beherakoa, ohiz kanpoko 3 libratze baino gehiago egunean.
- Oka egitea ez ohiko moduan.
- Eztarriko edo belarriko infekzioak antibiotikoarekin tratamenduan daudenean eta 24 ordu pasa ez direnean tratamendua hasi zenetik.
 - Eritasun edo gaixotasun kutsakorrekin. Kasu horietan haurra haurreskolara bueltatu ahal izateko familiak haurreskolan bertan emango dioten *Haurraren osasun egoera ona jakinarazten duen agiria* sinatuta entregatu beharko du. Agiri horren bitartez familiak jakinarazten du bere haurraren gaixotasuna kutsakorra ez dela, eta bere mediku edo pediatraren aldetik haurreskolara bueltatzeko behar diren jarraibideak edo gomendioak jaso dituela.

Haurren bat haurreskolan gaixotuz gero berehala jakinaraziko zaio familiari. Kasuak horrela eskatzen badu, eta familiarekin harremanetan jartzerik ez badago, haurra osasun-zentro batera eramango da.

Hezitzaileek haurrei botikak emateko beharrezkoa izango da familiek haurreskolan eman dioten *Haurreskolan botikak emateko eskaera* sinatuta aurkeztea, medikuak emandako tratamendu aktiboaren orria erantsiz. Bertan, haurra haurreskolan dagoen bitartean botika eman beharra, dosia eta maiztasuna adierazi behar da.

